



Kulturaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de la Cultura

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETIA HEDOLARITZA  
POLITIKA SABA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# EAEko kultura-programazioaren azterketa

2024. URTEA



# Aurkibidea

|                                                                               |       |
|-------------------------------------------------------------------------------|-------|
| 0. AURKEZPENA                                                                 | 3     |
| 1. FITXA TEKNIKOA                                                             | 4-6   |
| Azterketa-unibertsoa                                                          | 5     |
| Ohar metodologikoak                                                           | 6     |
| 2. EKITALDIEN AZTERKETA                                                       | 7-10  |
| Datuen laburpena                                                              | 8     |
| Ekitaldien banaketa, motaren arabera                                          | 9     |
| Ekitaldien banaketa, lurraldearen arabera                                     | 10    |
| 3. KONTZERTUAK                                                                | 11-15 |
| Ekitaldiak eta sarreren prezioa                                               | 12    |
| Kontzertuen banaketa, lurraldearen arabera                                    | 13    |
| Kontzertuen banaketa, hizkuntzaren arabera                                    | 14    |
| Kontzertuen banaketa, musika-generoaren arabera                               | 15    |
| 4. ANTZERKIA                                                                  | 16-20 |
| Emanaldiak eta sarreren prezioa                                               | 17    |
| Antzerki-emanaldien banaketa, lurraldearen arabera                            | 18    |
| Antzerki-emanaldien banaketa, hizkuntzaren arabera                            | 19    |
| Antzerki-emanaldien banaketa, antzerki-generoaren eta publiko-motaren arabera | 20    |
| 5. DANTZA                                                                     | 21-24 |
| Emanaldiak eta sarreren prezioa                                               | 22    |
| Dantza-emanaldien banaketa, lurraldearen arabera                              | 23    |
| Dantza-emanaldien banaketa, dantza-generoaren arabera                         | 24    |
| 6. BERTSOLARITZA                                                              | 25-28 |
| Ekitaldiak eta haien banaketa, lurraldearen arabera                           | 26-27 |
| 7. ERAKUSKETAK                                                                | 28-30 |
| Ekitaldiak eta haien banaketa, lurraldearen arabera                           | 29-30 |



# 0- Aurkezpena

2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean programatutako kultura-ekintzen azterketa

---

2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko EAEko kultura-programazioaren egoeraren berri ematen du txosten honek.

Bi ataletan banatuta dago azterketa. Batetik, kultura-programazioaren egoera erakusten da **bere osotasunean**, ekitaldi-moten arabera eta 2023ko epealdi bereko datuekin alderatuta. Bestetik, **bost kultura-esparru** zehatzen kultura-programazioaren errealitatean sakontzen da: **Musika**, **Antzerkia**, **Dantza**, **Bertsolaritza** eta **Erakusketak**.





# 1. Fitxa teknikoa

Azterketa honetarako erabilitako unibertsoa





# AZTERKETA-UNIBERTSOA

|                                           |                                                                                                                                                                                                               |
|-------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| INFORMAZIO-ITURRIA                        | Kulturklik<br>( <a href="http://www.kulturklik.euskadi.eus">www.kulturklik.euskadi.eus</a> )                                                                                                                  |
| AZTERTUTAKO UNIBERTSOA                    | 20.644 ekitaldi<br>Unibertso osoa, ez lagin bat                                                                                                                                                               |
| JASOTAKO EKITALDI-MOTAK                   | 13 ekitaldi-mota<br>Kontzertuak, Antzerkia, Erakusketak, Dantza, Bertsolaritza, Jaiak, Hitzaldiak, Azokak, Zinema eta ikus-entzunezkoak, Ikastaroak/tailerrak, Lehiaketak, Jaialdiak eta zikloak, Bestelakoak |
| AZTERTUTAKO EPEALDIA                      | 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra<br>bitartean programatutako ekitaldiak                                                                                                                              |
| AZTERTUTAKO LURRALDEAK                    | Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa                                                                                                                                                                                   |
| DATUEN AZTERKETA ETA KOORDINAZIO TEKNIKOA | Kualitate Lantaldea (Kulturklik taldea)                                                                                                                                                                       |



# OHAR METODOLOGIKOAK

## ERAKUSKETAK

- Aztertutako erakusketak erreferentziazko epealdian (2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean) **inauguratutakoak dira**, haien amaiera-data edozein dela ere. Ez dira kontuan izan 2024an zehar jendearentzat irekita zeuden arren **2024ko urtarrilaren 1a baino lehen inauguratu ziren erakusketak**.

## ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

- Kulturklien ez dira jasotzen EAEko zinema-areto guztietako **film komertzialen emanaldiak**. Honako hauek baino ez dira argitaratzen Kulturklikeko agendan: **euskal filmen emanaldiak** EZAEn zinema-areoetan, euskarazko filmen emanaldiak (Zinema Euskaraz) eta programa bereziekin (zinema-zikloak, zineforumak eta/edo zineklubak, esaterako) lotutako emanaldiak.

## PREZIOAREN ALDAGAIA

- **Kontzertuen eta antzerki- eta dantza-emanaldien prezioa soilik hartu da kontuan**. Ez da aztertu bertsolaritza-ekitaldien eta erakusketen prezioa, bi arrazoi nagusirengatik: batetik, doako ekitaldiak izaten dira kasu askotan (aire zabaleko bertso-saioak eta kultur etxeetako edo udal-espazioetako erakusketak doan izaten dira ia beti); bestetik, bi ekitaldi-mota horietan, sarrerek ekitalditik haragoko beste jarduera batzuk ere barne hartzen dituzte maiz (adibidez, bertso-afari edo -bazkarietako sarrerek barne hartzen dituzte afaria edo bazkaria, eta museoetako sarrerek zentro jakin horren erakusketa-eskaintza osoa bisitatzeko aukera ematen dute, erakusketa bakarrera mugatu orde). Aztertutako unibertsoari dagokionez, **batez besteko prezioa kalkulatzeko**, ordainpeko kontzertuak eta dantza- edo antzerki-ikuskitzadak baizik ez dira izan dira kontuan, hots, **kanpoan utzi dira doako ekitaldiak**.

## EMANALDIEN ARABERAKO AZTERKETA, ANTZERKIAN ETA DANTZAN

- **Antzerkiaren eta dantzaren kasuan, emanaldien arabera** egin da azterketa, eta ez ekitaldien arabera. Horrez gain, estatistika-helburuekin, formatu txikiko antzezlanak programatutako egunen arabera zenbatu dira, eta ez egindako emanaldien arabera.

## AUTOMATIZAZIOEN ERAGINA

- Kulturklien etengabeko hobekuntza-prozesuaren baitan, **edukiak argitaratzeko automatizazio-mekanismoak** jarri dira martxan EAEko hainbat kultura-eragilerekin. Horren ondorioz, **ekitaldi-mota batzuen kopurua hazi egin da**; honako hauena, besteak beste: *Bestelakoak*, *Zinema eta ikus-entzunezkoak* eta *Hitzaldiak*.

# 2. Ekitaldien azterketa

EAEko kultura-jardueraren laburpena:  
2024ko urtarrilak 1 - abenduak 31





# DATUEN LABURPENA

Kulturklikeko agendan jasotako datuen arabera, 20.644 kultura-ekitaldi egin dira EAEn 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean.

# 20.644 ekitaldi

2024an


# 18.337 ekitaldi

2023an

# +% 12

# EKITALDIEN BANAKETA, MOTAREN ARABERA


1. grafikoa: Ekitaldien banaketa, motaren arabera (dantza eta antzerkia emanaldien arabera jaso dira)



\*Jaiak; Lehiaketak; Ikastaroak/tailerrak; Jaialdiak eta zikloak; Ipuin-kontaketak; eta Azokak

# EKITALDIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

2. grafikoa: Ekitaldiak, lurraldearen arabera (%)



- 2023an:
- **Araba: % 14,8**
  - **Bizkaia: % 44,5**
  - **Gipuzkoa: % 40,7**

1. taula: Ekitaldien banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko

|          | 2024ko EKITALDIAK<br>100.000 biztanleko | 2023ko EKITALDIAK<br>100.000 biztanleko |
|----------|-----------------------------------------|-----------------------------------------|
| ARABA    | 932                                     | 808                                     |
| BIZKAIA  | 804                                     | 710                                     |
| GIPUZKOA | 1.145                                   | 1.032                                   |

Ekitaldien % 44,8 Bizkaian egin dira, % 40,1 Gipuzkoan eta % 15,1 Araban.

Ekitaldien banaketa lurraldearen arabera 100.000 biztanleko kalkulatuta, **Gipuzkoa da 2024an ekitaldi gehien programatu duen lurraldea**: 1.145 ekitaldi 100.000 biztanleko.



# 3. Kontzertuak

2024an EAEn izandako kontzertuen azterketa





## KONTZERTUAK: EKITALDIAK ETA SARREREN PREZIOA

**5.743**  
kontzertu

**+% 3,2**  
2023ko datuekin alderatuta

2024an, EAEn izan diren 5.743 kontzertu jaso dira Kulturkliken.

Ordainpeko kontzertuen batez besteko prezioa 15,8 eurokoa izan da (2023an 14,4 eurokoa izan zen). Kontzertuen % 49,1 doan izan dira (2023an % 46,2 izan ziren doan).

Sarreraren batez besteko  
**PREZIOA**


**15,8 €**  
14,4 €  
2023an

**PREZIOA**  
(mediana)

**13,5 €**  
12,0 €  
2023an

# KONTZERTUEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

3. grafikoa: Kontzertuen banaketa, lurraldearen arabera (%)



- 2023an:
- **Araba: % 13,9**
  - **Bizkaia: % 44,6**
  - **Gipuzkoa: % 41,5**

2. taula: Kontzertuen banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko

|          | 2024ko KONTZERTUAK<br>100.000 biztanleko | 2023ko KONTZERTUAK<br>100.000 biztanleko |
|----------|------------------------------------------|------------------------------------------|
| ARABA    | 250                                      | 232                                      |
| BIZKAIA  | 225                                      | 217                                      |
| GIPUZKOA | 321                                      | 321                                      |

Kulturklien jasotako kontzertuen banaketa lurraldearen arabera aztertuta, kontzertu guztien % 45,0 Bizkaian izan dira, % 40,4 Gipuzkoan eta % 14,6 Araban.

Kontzertuen banaketa lurraldearen arabera 100.000 biztanleko kalkulatuta, Gipuzkoa da 2024an kontzertu gehien programatu duen lurraldea: 321 ekitaldi 100.000 biztanleko.

# KONTZERTUEN BANAKETA, HIZKUNTZAREN ARABERA

3. taula: Kontzertuen banaketa, hizkuntzaren arabera (%)

|                     | 2024ko<br>KONTZERTUAK | 2023ko<br>KONTZERTUAK |
|---------------------|-----------------------|-----------------------|
| EUSKARA             | 26,0                  | 27,0                  |
| GAZTELANIA          | 19,8                  | 20,0                  |
| HIZKUNTZA GABE      | 17,8                  | 17,9                  |
| HAINBAT HIZKUNTZA * | 17,0                  | 14,7                  |
| INGELES             | 10,9                  | 13,3                  |
| BESTE BATZUK        | 0,9                   | 1,2                   |
| EZEZAGUNA           | 7,6                   | 5,9                   |

Kontzertuen hizkuntzari dagokionez, euskara izan da hizkuntza erabiliena EAEko 2024ko musika-emanaldietan: kontzertuen % 26,0 euskaraz izan dira, gaztelaniazko kontzertuen (% 19,8) eta hizkuntza gabeko musika-emanaldien (% 17,8) aurretik.

Hainbat hizkuntzatako emanaldiak % 17 izan dira, ingelesezkoen (% 10,9) aurretik.

\*Hizkuntza ezberdinetan abesten duten taldeek ekitaldi beraren barruan emandako kontzertuak dira gehienbat

# KONTZERTUEN BANAKETA, MUSIKA-GENEROAREN ARABERA

4. taula: Kontzertuen banaketa, musika-generoaren arabera (%)

|                                                                                                         | 2024ko<br>KONTZERTUAK | 2023ko<br>KONTZERTUAK |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------|-----------------------|
| MUSIKA<br>GARAIKIDEA<br>(pop-a, rock-a, heavy-a, rap-a,<br>jazz-a, funk-a, fusio-musika,<br>reggaea...) | 77,7                  | 77,4                  |
| MUSIKA KLASIKOA                                                                                         | 7,9                   | 8,9                   |
| MUSIKA<br>ESPIRITUALA<br>(koralak, erlijiosoa, gospela...)                                              | 7,7                   | 6,0                   |
| EUSKAL MUSIKA<br>HERRIKOI ETA<br>TRADIZIONALA                                                           | 3,8                   | 3,8                   |
| MUNDUKO<br>MUSIKAK                                                                                      | 2,7                   | 2,6                   |
| BESTE BATZUK                                                                                            | 0,2                   | 1,3                   |

Musika garaikideko emanaldiek izan dute presentzia handiena 2024ko kontzertuen **agendan**; genero horretakoak izan dira emanaldi guztien % 77,7.

Musika klasikoko kontzertuak guztien % 7,9 izan dira, eta musika espiritualekoak % 7,7.

Kontzertuen % 3,8 euskal musika herrikoi eta tradizionalekoak izan dira, eta % 2,7 munduko musikak generokoak.



# 4. Antzerkia

EAEko 2024ko antzerki-programazioaren  
azterketa





## ANTZERKIA: EMANALDIAK ETA SARREREN PREZIOA

**4.408**  
emanaldi

**+% 2,8**

2023ko datuekin alderatuta

2024an, EAEn izan diren 4.408 antzerki-emanaldi jaso dira Kulturkliken.

Ordainpeko antzerki-emanaldien batez besteko prezioa 15,0 eurokoa izan da. Antzerki-emanaldien % 35,5 doan izan dira (2023an % 31,0 izan ziren doan).

Sarrereren batez besteko  
**PREZIOA**

**15,0 €**

13,2 €

2023an

**PREZIOA**  
(mediana)


**11,0 €**

10,0 €

2023an

# ANTZERKI-EMANALDIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

4. grafikoa: Antzerki-emanaldien banaketa, lurraldearen arabera (%)



5. taula: Antzerki-emanaldien banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko

|          | ANTZERKI-EMANALDIAK<br>2024an<br>100.000 biztanleko | ANTZERKI-EMANALDIAK<br>2023an<br>100.000 biztanleko |
|----------|-----------------------------------------------------|-----------------------------------------------------|
| ARABA    | 181                                                 | 183                                                 |
| BIZKAIA  | 204                                                 | 193                                                 |
| GIPUZKOA | 202                                                 | 204                                                 |

Kulturklien jasotako antzerki-emanaldien banaketa lurraldearen arabera aztertuta, % 53,1 Bizkaian izan dira, % 33,1 Gipuzkoan eta % 13,8 Araban.

Emanaldien banaketa lurraldearen arabera 100.000 biztanleko kalkulatuta, **altuagoa izan da Bizkaian (204)**, Gipuzkoan (202) eta Araban (181) baino.

# ANTZERKI-EMANALDIEN BANAKETA, HIZKUNTZAREN ARABERA

6. taula: Antzerki-emanaldien banaketa, hizkuntzaren arabera (%)

|                     | 2024ko<br>ANTZERKI-EMANALDIAK | 2023ko<br>ANTZERKI-EMANALDIAK |
|---------------------|-------------------------------|-------------------------------|
| GAZTELANIA          | 44,2                          | 46,0                          |
| EUSKARA             | 40,0                          | 38,8                          |
| HIZKUNTZA GABE      | 12,3                          | 12,3                          |
| HAINBAT HIZKUNTZA * | 2,2                           | 1,8                           |
| BESTE BATZUK        | 1,2                           | 1,2                           |

2024ko antzerki-emanaldien % 44,2 gaztelaniaz izan dira; % 40,0, euskaraz.

Bestalde, emanaldien % 12,3 hizkuntza gabeak izan dira (kasu gehienetan, txotxongiloak, maskara-antzerkia, zirkua, kale-antzerkia...).

\*Aldi berean hizkuntza bat baino gehiago darabilten antzezlanen emanaldiak edo hizkuntza ezberdinetako emanaldiak dituzten antzerki-ekitaldiak

# ANTZERKI-EMANALDIEN BANAKETA, ANTZERKI-GENEROAREN ETA PUBLIKO-MOTAREN ARABERA

7. taula: Antzerki-emanaldien banaketa, antzerki-generoaren arabera (%)

|                   | 2024ko<br>ANTZERKI-EMANALDIAK | 2023ko<br>ANTZERKI-EMANALDIAK |
|-------------------|-------------------------------|-------------------------------|
| TESTU-ANTZERKIA   | 47,0                          | 49,8                          |
| ZIRKUA            | 15,1                          | 15,0                          |
| ANTZERKI MUSIKALA | 10,4                          | 10,0                          |
| BAKARRIZKETAK     | 9,4                           | 6,0                           |
| KALE-ANTZERKIA    | 7,3                           | 8,1                           |
| MAGIA             | 4,4                           | 4,9                           |
| ANTZERKI LIRIKOA  | 2,0                           | 1,7                           |
| BESTE BATZUK      | 4,4                           | 4,4                           |

Testu-antzerkia izan da 2024an EAEn gehien antzeztu den antzerki-generoa, emanaldien % 47,0ekin. Emanaldi-kopuru handiena izan duen bigarren antzerki-generoa zirkua izan da (% 15,1) eta hurrengoa antzerki musikala (% 10,4).

Jarraian kokatu dira bakarrizketak (% 9,4), kale-antzerkia (% 7,3) eta magia (% 4,4). Antzerki lirikoko emanaldiak % 2,0 izan dira eta % 4,4 "Beste batzuk" moduan sailkatutako ikuskizunen emanaldiak (hizkuntza gabeko antzerki-emanaldiak dira gehienbat: txotxongiloak, maskarak...).

Haurrentzako eta/edo familientzako emanaldiak





# 5. Dantza

EAEko 2024ko dantza-programazioaren  
azterketa





## DANTZA: EMANALDIAK ETA SARREREN PREZIOA

903  
emanaldi

+% 3,7

2023ko datuekin alderatuta

2024an, EAEn izan diren 903 dantza-emanaldi jaso dira Kulturk liken.

Ordainpeko dantza-ikuskizunen batez besteko prezioa 14,0 eurokoa izan da. Emanaldien % 59,7 doan izan dira (2023an % 56,1 izan ziren doan).

Sarreraren batez besteko  
PREZIOA

14,0 €

14,1 €

2023an

PREZIOA  
(mediana)


10,5 €

10,5 €

2023an

# DANTZA-EMANALDIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

5. grafikoa: Dantza-emanaldien banaketa, lurraldearen arabera (%)



■ Bizkaia ■ Gipuzkoa ■ Araba

2023an:

- Araba: % 11,9
- Bizkaia: % 48,5
- Gipuzkoa: % 39,6

8. taula: Dantza-emanaldien banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko

|          | DANTZA-EMANALDIAK<br>2024an<br>100.000 biztanleko | DANTZA-EMANALDIAK<br>2024an<br>100.000 biztanleko |
|----------|---------------------------------------------------|---------------------------------------------------|
| ARABA    | 35                                                | 30                                                |
| BIZKAIA  | 37                                                | 36                                                |
| GIPUZKOA | 49                                                | 49                                                |

Dantza-emanaldien banaketa lurraldearen arabera 100.000 biztanleko kalkulatuta, Gipuzkoak 49 emanaldi programatu ditu, Bizkaiak 37 eta Arabak 35.

# DANTZA-EMANALDIEN BANAKETA, DANTZA-GENEROAREN ARABERA

9. taula: Dantza-emanaldien banaketa, dantza-generoaren arabera (%)

|                     | 2024ko<br>DANTZA-EMANALDIAK | 2023ko<br>DANTZA-EMANALDIAK |
|---------------------|-----------------------------|-----------------------------|
| DANTZA GARAIKIDEA   | 64,7                        | 66,6                        |
| DANTZA TRADIZIONALA | 24,6                        | 23,2                        |
| BALLET KLASIKOA     | 3,8                         | 4,9                         |
| BESTE BATZUK        | 6,9                         | 5,3                         |

Dantza garaikidea izan da EAEko agertokietan emanaldi gehien izan duen dantza-generoa, guztien % 64,7. Dantza tradizionala izan da bigarrena, emanaldien % 24,6rekin.

Ballet klasikoko emanaldiak % 3,8 izan dira eta "Beste batzuk" moduan sailkatutako ikuskizunen emanaldiak % 6,9 (dantza eta beste diziplina artistiko batzuk –zirkua, antzerkia edo bertsolaritza, esaterako– uztartzen dituzten ikuskizunak dira, gehienbat).



# 6. Bertsolaritza

EAEko 2024ko bertsolaritza-programazioaren  
azterketa





## BERTSOLARITZA: EKITALDIAK ETA HAIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA


# 1.062

bertso-saio

+% 0,5

2023ko datuekin alderatuta

6. grafikoa: Bertso-saioen banaketa, lurraldearen arabera (%)



- 2023an:
- Araba: % 10,0
  - Bizkaia: % 36,6
  - Gipuzkoa: % 53,4

# BERTSOLARITZA: EKITALDIAK ETA HAIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

10. taula: Bertso-saioen banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko

|          | BERTSO-SAIOAK<br>2024an<br>100.000 biztanleko | BERTSO-SAIOAK<br>2023an<br>100.000 biztanleko |
|----------|-----------------------------------------------|-----------------------------------------------|
| ARABA    | 27                                            | 32                                            |
| BIZKAIA  | 32                                            | 34                                            |
| GIPUZKOA | 83                                            | 79                                            |

2024ko bertso-saioen % 56,3 Gipuzkoan egin ziren, % 35,1 Bizkaian eta % 8,6 Araban.

Kulturklien jasotako bertso-saioen banaketa lurraldearen arabera **100.000 biztanleko nabarmen handiagoa da Gipuzkoan** (83 ekitaldi 100.000 biztanleko), Bizkaian (32) eta Araban (27) baino.



# 7. Erakusketak

2024an EAEn izandako erakusketen azterketa





# ERAKUSKETAK: EKITALDIAK ETA HAIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA


# 1.266

## erakusketa

## +% 2,7

2023ko datuekin alderatuta

7. grafikoa: Erakusketen banaketa, lurraldearen arabera (%)



■ Bizkaia ■ Gipuzkoa ■ Araba

2023an:

- Araba: % 18,6
- Bizkaia: % 48,6
- Gipuzkoa: % 32,8

# ERAKUSKETAK: EKITALDIAK ETA HAIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

11. taula: Erakusketen banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko

|          | ERAKUSKETAK<br>2024an<br>100.000 biztanleko | ERAKUSKETAK<br>2023an<br>100.000 biztanleko |
|----------|---------------------------------------------|---------------------------------------------|
| ARABA    | 63                                          | 69                                          |
| BIZKAIA  | 56                                          | 52                                          |
| GIPUZKOA | 57                                          | 56                                          |

2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean inauguratutako erakusketen erdiek (% 50,5) Bizkaian ireki dituzte ateak, % 32,8k Gipuzkoan eta % 16,7k Araban.

Erakusketen banaketa lurraldearen arabera 100.000 biztanleko kalkulatuta, zenbatekoa altuagoa da Araban (63 erakusketa 100.000 biztanleko), Gipuzkoan (57) eta Bizkaian (56) baino.